



# AMAZONIA GARA

Amazonia defendatzeko  
gako ekofeministak



# AMAZONIA GARA

guztión etxea defenda dezagun



## alboan

### Bilbo

Aita Lojendio, 2 - 2.

48008 Bilbo

☎ 944 151 135

### Iruñea

Barañain Etorbidea, 23

31011 Pamplona

☎ 948 231 302

### Donostia

Andía, 3

20004 Donostia

☎ 943 275 173

### Vitoria-Gasteiz

Estenaga Apezpikua, 1

01002 Vitoria-Gasteiz

☎ 945 202 676

[www.somos-amazonia.org](http://www.somos-amazonia.org) • [www.alboan.org](http://www.alboan.org)

## AMAZONiA GARA. Amazonia defendatzeko gako ekofeministak

© **alboan** Fundazioa

Egileak: Sara Diego, eragin politikoa alboan. Guillermo Otano, eragin politikoa alboan

Data: 21 de abril 2022

Diseinua eta maketa: Marra, S.L.

Irudiak: FG Trade, Alejo Miranda, Frazao Studio, MaestroBooks, Joao Mello, slecocq Photography



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu.

Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# AURKIBIDEA

|                                                                                                   |           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. SARRERA</b>                                                                                 | <b>5</b>  |
| 1.1. Ikusgaiak ikusezinean duen boterea                                                           | 6         |
| <b>2. PANAMAZONIAKO GATAZKA EKOSOZIALAK</b>                                                       | <b>8</b>  |
| 2.1. Amazonia ikusezina: balio neurtezina                                                         | 9         |
| 2.2. Ikusgai dagoen Amazonia eta zabalik dituen zauriak                                           | 12        |
| 2.2.1. Bizia eta lurraldea merkantilizatzear sortutako ondorioak                                  | 12        |
| a. Baso-soilketa eta "itzulerarik gabeko puntua"                                                  | 13        |
| b. Meatzaritzaren eta petrolioaren arloko estraktibismoak gizartean eta ingurumenean duen eragina | 14        |
| c. Agronegozioak: monolaborantza, abeltzaintza                                                    | 16        |
| 2.2.2. Nazioz haraindiko enpresen erantzukizuna                                                   | 18        |
| <b>3. AMAZONIAKO EMAKUMEAK ETA EKOFEMINISMOAK</b>                                                 | <b>21</b> |
| 3.1. Emakume indigenak: indarkerien interseksionalitatea                                          | 21        |
| a. Estraktibismoak gizartean eta ingurumenean duen eragina generoaren ikuspegitik                 | 21        |
| b. Eredu soziokulturalen eragina generoaren ikuspegitik                                           | 24        |
| 3.2. Amazonia defendatzeko giltzarri ekofeministak                                                | 25        |
| <b>4. BIBLIOGRAFIA</b>                                                                            | <b>28</b> |







# 1. SARRERA

Planetako bizia arriskuan dago. Era guzti-guztietako bizia, naturaren eta gizakien bizia, alegia. Bizi hori dimentsio anitzeko krisiaren mehatxupearan dagoenez, eraldaketa sakona eta integrala egin behar da. Izan ere, planeta osoak bizirik iraun dezan, giza biziaren eta naturaren artean dauden interkonexioak eta lotura globalak ulertu behar dira, eta harreman horiek zaintzea eta defendatzea premiazkoa dela barruratu beharra dago. Lurraren metaforatzat hartutako **etxe erkidearen** kontzeptuak ideia horretara hurbiltzen gaitu, planetari buruz hitz egiten duenean izaki bizidun guztien etxea dela dioelako. Edonola ere, gaur egun, gizarte eta ingurumen arloko krisi global bakar eta konplexuari aurre egin behar diogu, eta, horren aurrean, premiazkoa da banan-banan, erkidego-mailan eta maila instituzionalean ditugun lehentasunak berriro zehaztea, tokian tokikitik arlo globalerantz.

Argitalpen hau **“Amazonia gara, geure etxe erkidea defendatu dezagun”** kanpainaren barruan dago kokatuta, eta, ikuspegi ekofeministatik, bidezkoagoa, berdintasuneko eta jasangarriagoa den munduaren alde mobilizatzen den herritartasun kritikoa sustatzea dauka helburu. Hartara, hurrengo kapituluek gaur egungo eredu ekonomikoaren eta Amazoniako gizarte zein ingurumen arloko krisiaren artean dauden lotuneen inguruan kontzientziaztea eta sakontzea du xede, funtsezko ekosistema delako klimaren egonkortasunari begira eta, horren ondorioz, planetako biziari eusteko orduan.

Hona hemen argitalpen hau zeharka gurutzatzen duten hiru premisak:

**Gizarte eta ingurumen arloko perspektibaren** arabera, gizarte-arloa ezin da ingurumen-arlotik banatu. Horrela, honako hau berriro zehazteko premian du eragina: eredu sozioekonomikoa, bere egitura hierarkikoak, bere harreman bidegabe bezain desberdinak eta gizakiak naturarekin zein planeta osoarekin duen jokabidea.

**Ikuspegi ekofeministak** errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko gakoak eskaintzen ditu, eta pertsonen zein naturaren zainketa bizitzaren erdigunean jartzeko premia dagoela adierazten du. Horretarako, zapaltzeko, inposatzeko eta jabetzeko formulak ordezkatu eta ikuspen antropozentrikoak zein androzentrikoak<sup>1</sup> gainditu behar dira.

**Tokiko eta arlo globaleko ikuspegiak** lehendik dauden elkarlotura globalak nabarmentzen ditu, biak planetan dituen interdependentzia eta ekomenpekotasuna agerian jartzeko.

Agiri honen prestaketak eta ikuspegiak euskal emakumeen eta Panamazonia<sup>2</sup> osatzen duten herrialdeetan bizi diren emakumeen ahotsak dituzte inspirazio-iturri. Azken urtean, emakumeen talde honek elkartzeko, kulturarteko elkarriketak edukitzeko eta elkarrengandik ikasteko prozesua bizi izan du, eta, bertan, euren begirada ekofeministetatik, testuinguru bakoitzeko gizarte eta ingurumen arloko bera-riazkotasunak eta lotuneak partekatu dituzte. Eskerrak eman nahi dizkiegu epealdi horretan partekatu dituzten konpromisoagatik, eskuzabaltasunagatik, jakintzagatik eta esperientziengatik, gaur egun txosten honen edukia aberasten dute-eta. Testuinguru, kultura eta belaunaldi desberdinetako emakumeak diren neurrian, argitalpen honek ez ditu korrante edo argudio teoriko ekofeministen desberdintasunak nabarmendu nahi, antzeko ezaugarriak azaldu baizik, desberdintasunaren eta esplotazioaren ereduak hausten duten eta pertsonak zein natura biziaren erdigunean jartzeko premian eragina duten giltzarriak zehazteko eta indartzeko.

- 
- 1 **Antropozentrismoaren** teoriak baieztatu egiten du gizakia unibertsoaren erdigunea dela, eta uste du bere interesek gainerako gai guztiek baino arreta handiagoa behar dutela. **Androzentrismoa** gizona erdigunean kokatzen duen jarrera da. Horrek adierazi nahi du lotune sozialak eta errealitatearen ikuspena gizonaren ikuspegitik eratzten direla.
  - 2 Amazonia kontinentalaren edo **Panamazoniaren azalera** Hego Amerikakoaren % 38koa da, eta bederatzi estatuk partekatzen dute: Bolivia, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Guyana, Peru, Surinam, Venezuela eta Guyana Frantsesa.



## 1.1. Ikusgaiak ikusezinean duen boterea

Planetako biziak mendeak daramatza bazterketa zein desberdintasuna sortzen dituen eta ingurumena esplotatzen duen sistemaren menpe. Garapen jasanezinaren eredu hori metaketan, boterearen bilaketan eta hazkuntza ekonomikoan dago oinarrituta, potentzia handietako merkatuetako erritmoei men egiten die eta ez dio jaramonik egiten naturaren esplotazioan nahiz giza eskubideen urraketan duten eraginari.

**Icebergaren** irudiak sistema honen logika irudikatzen laguntzen du, eta, bertan, eredu kapitalista heteropatriarkalak oinarri dituen pentsamendu dikotomikoaren ondorioz, icebergaren goiko alde, ikusgai dagoena, beheko aldearen, ikusezinen, menpe dago. Eraketa horrek botere-harreman bidegabeak bultzatzen ditu, eta hierarkizatutako aurkarien pare baztertzailleetan banatzen du errealtatea: kultura-natura, gizona-emakumea, gizatiarra-animalia, zentzua-emozioa, publikoa-pribatua eta iparraldea-hegoaldea, besteak beste.

*Icebergaren beheko alde, natura eta emakumeok gauden lekua [...], borrokan ari da ikusgai egiteko. Ikusten ari gara: natura leku guztietan agertzen ari da. COVID-19aren pandemia da horren adierazgarri, eta emakumeok gero eta ozenago egiten dugu oihu. [...] Alde ikusezina apurka-apurka azaleratzen ari da, baina beheko aldean dago oraindik, icebergari ez zaiolako buelta eman. Lan nekeza izango da benetan.*

ISA ÁLVAREZ

Icebergaren metaforan, ikusgaitasun(ezintasun)aren nozioa giltzarria da sistema sozioekonomikoaren egitura ulertzeko. Ikusgai dagoen alde metaketa-prozesuaren erakusgarri da, eta alde ikusezina biziari eusten diona da. Irudi horrek adierazten du era bateko eta besteko esparru sozioekonomikoak daudela eta batzuk egitura osoaren ezkutuko oinarria direla. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago esparru ikusgaien eta ikusezinen arteko banaketa ez dela garbia, egitura osoa zeharkatzen duten dinamikak daudelako. Hau da, kapitalismoan, ez dago bizirik metaketa-zirkuituetatik kanpo, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, horien eta haien nagusitzaren baldintzapean dago (A. Pérez Orozco)

*Geure buruari honako hau galdetzen jarraitu behar dugu... zertan ari gara parte hartzen?, zertan oinarritzen da gure bizi-sistema? Izan ere, munstro handia daukagu hizpide (kapitalismoa), eta haren parte gara ezinbestean. Horrexegatik da borroka zaila.*

AMAGOIA MURUA

Egitura honek **zibilizazioaren krisia** jartzen du agerian, eta, ezeren gainetik, balioen krisia da. Balio horiek ikusgai dagoen aldeari eusten diote, kultura antropozentrista bultzatzen dute eta zenbait jokabide justifikatzen dituzte; esate baterako, naturaren esplotazioa eta suntsipena. Horrez gain, ingurumenean eta gizartearen sorrarazitako eraginak uzten dituzte albo batera, genero-desberdintasuna zein giza talde zaurgarrienenganazko bereizkeriak sortu eta babesten dituzte eta aberastzat hartutako herrialdeen nahiz txirotzat hartutakoen arteko botere desberdineko harremanak betikitzen dituzte. Mundu-ikuskera horrek gizarte eta ingurumen arloko krisia azkartzen du: klima-aldaketak aurrera egiten du, biodibertsia-

tatea murrizten da, uraren kutsadura handigoa da eta desberdintasun sozialak areagotzen dira, ikusgai dagoen aldea indartu eta gizateriaren zati bat aberastu ahal izateko, bestearen, alde ikusezinaren, bizi-baliabideak eta lurraldeak esplotatzeko direlako.

Era bateko eta besteko korrante ekofeministek kapitalaren eta biziaren arteko gatazka moduan azaltzen dituzte dinamika horiek, kapitala naturaren eta giza biziaren ondasunen kontura baloratzen duten eredu ekonomikoen ondorioz sortzen direlako (Perez Orozco, 2014). Horrela, ekofeminismoek ohiko ekonomiaren joera salatzen dute, naturak eskainitako “ingurumen-zerbitzuak” egiten dituelako ikusezin eta, modu berean, genero-desberdintasunak eta emakumeek biziari eusteko orduan egiten dituzten ekarpenak kontuan hartzen ez direlako.

Alde horretatik, icebergaren egiturak natura gune ikusezinean lekurtzen badu ere, badago nabaritasun zientifikorik giza espeziearen bizi-raupena lau fenomenoren bilakaeraren menpe dagoela dioenik: Groenlandiako izotza urtzea, Mendebaldeko Antartidako izotza urtzea, Ozeano Atlantikoko itsaslasterrak aldatzea (sistema horrek ur beroak garraiatzen ditu iparralderantz; eta ur hotzak, hegoalderantz) eta Amazoniako ingurumenean ondorioak sortzea (Alemaniako Ondorio Klimatikoei buruzko Ikerketetarako Potsdam Institutua, Martinsek aipatutakoa, 2021). Planetaren tenperatura globalaren gorakada funtsezko faktorea da prozesu horiek azkartzeko orduan, eta, kontraesana badirudi ere, iraultza industrialetik aurrera, **giza jarduera** izan da planetaren tenperaturaren aldaketa sorrarazi duen funtsezko arrazoia (De Cózar, 2019).



*Naturaren defentsaren aldeko balioak zehaztu behar ditugu berriro, gaur egun dena merkaturatzen delako, dena material moduan neurtu daitekeelako eta beti interesak direlako garaile [...] Mugimendu ekologistok denaren aurka omen gaude. Ez gaude denaren aurka, beste eredu baten alde gaude. Pertsona guztiei, ez gutxi batzuei, ongizate soziala ematen dien ereduaren alde.*

AITZIBER SAROBE

Gizarte eta ingurumen arloko krisia ikuspegi ekofeministatik ulertzen bada, gizartearen eta naturaren arteko harremanak jartzen dira kolokan, irudiak eratu eta desberdintasunezko jarduketak legitimatu dituzten eredu etnozentriko eta androzentrikoak identifikatzen dira-eta (Trevilla, 2018, 2). Horretarako, hurrengo kapituluetan, Amazoniako lurraldeko gizarte eta ingurumen arloko testuinguruaren panoramika erakutsiko da dinamika globalak eraldatzeko premiaren adibide argi moduan. Izan ere, planetako biziari eusteko orduan garrantzi handia badu ere, gaur egun, Amazonia, lurraldea nahiz biztanleria, ikusezina da, eta isilduta dago.



## 2. PANAMAZONIAKO GATAZKA EKOSOZIALAK

**Gatazka ekosozialek** naturako ondasunak eskuratzean, erabiltzean eta esplotatzean sortzen diren liskarrekin dute zerikusia, eta, gaur egun, funtsezko elementua dira, planetak gainditu behar dituen erronkak zein mugak eta lurraldeen nahiz bizimoduen arteko interdependentzia globalak ulertzeko.

Berez, gatazka ekosozialak tokian tokikoak dira, berriztagarriak ez diren baliabide natural gehienak zori geografikoaren menpe dauden neurrian. Edonola ere, ekosistema batzuek, baso tropikalek, esaterako, funtsezko garrantzia dute planetako klimaren egonkortasunari eusteko orduan. Horrek esan nahi du narriatzen edo aldatzen direnean, arazoa ez dela inolaz ere tokian tokikoa, gizateria osoan eragina duten ondorio globalak sortzen dituztelako.

Bioma amazonikoa da errealitate horren inongo adibide onena. Amazonas ibaiko arroetik eta bere ibaia-darretatik sortzen da, Panamazonia izeneko 7,9 milioi km<sup>2</sup> inguruko lurralde zabala hartzen du (Europar Batasunaren azaleraren bikoitza ia-ia) eta bederatzi herrialdetan dago banatuta (Bolivia, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Peru, Surinam, Venezuela, Guyana eta Guyana Frantsesa). Bertako ezin konta ahala aberastasun naturalengatik eta bertako biztanleen dibertsitate kulturalagatik mundu zabalean oso ezaguna den eskualdea da.

Ia-ia 34 milioi lagun etxea da, eta basoen, erriberen, zelaie eta hiri handien artean bizi dira sakanbanatuta. Biztanle horien 1,5 milioi inguru 360 bat herri indigenatakoak dira, eta 86 bat hizkuntzatan zein 650 dialekto desberdinetan hitz egiten dute<sup>3</sup>. Dentsitate demografikoa 4,5 biztanlekoa da kilometro koadroko (Hego Amerikako batezbestekoa baino bost aldiz txikiagoa), nahiz eta hazten ari den, industria estraktiboek lurrak pilatzeko garatutako politikagatik giza egonleku berriak sortu direlako. Industria horiek, hain zuzen ere, mehatxu zuzena dira biodibertsitatearentzat, baita ibaiak eta lurraldeak bizibide dituzten tokiko erkidegoentzat eta borondatez isolatuta bizi diren 70 inguru herri indigenentzat ere. Zeharka, hurrengo epigrafeetan azaltzen den bezala, eskualde horren eta bertako biztanleen orainak eta etorkizunak lotune estu-estua dute gureekin.

*Emakume irakasle amazoniko batek beti esaten zigunez, “lagunok, Amazonia arriskuan dago, Amazonia defendatu beharra dago. Aberatsak gara, baina munstroa dator, etsaiak datoz, eta gabetu egin nahi gaituzte”.*

ANITALIA PIJATCHI

3 Datu horiek Gizarte eta Ingurumen Informazioaren Amazoniako Saretik datoz (RAISG), eta oraintsu laburtu dira hemen: *Amazonia. La batalla por la última frontera*, La Vanguardiako 76. dossierra, 2019ko apirila/ekaina. Oraintsukoagoak diren beste txosten batzuetan, Eliza Sare Panamazonikoak (REPAM, 2020) argitaratutako Atlas Panamazonikoan, esaterako, zenbatetsitakoaren arabera, biztanle indigenen kopurua 2-2,5 milioi lagunekoa da, 377 herri indigena daude eta 250 hizkuntza/dialekto desberdinetan hitz egiten dute. Nahiago izan dugu zenbatespen kontserbadoreenak erabili, eta, hala ere, lurraldeko dibertsitate kultural ikaragarriaren erakusgarri dira.

## 2.1. Amazonia ikusezina: balio neurtezina

Oro har, Panamazonian pentsatzen dugunean, bertako aberastasun naturalak datozkigu gogora. Hain zuzen ere, lurreko azaleraren % 4 baino ez bada ere, Amazonas ibaiak eta bere ibaiadarrek planetako ur gezaren laurdena eskaintzen dute gutxi gorabehera. Horrez gain, lurreko baso tropikal handiena da, landare zein animalia ezagunen espezieen % 10 inguru daude bertan, eta haietako batzuk bertan baino ez daude (PNUMA eta OCTA, 2009).

Kolonizazioaren garaitik, ordea, aberastasuna lortzeko asmoz naturaren jabetza arrazionala helburu duten irudiak sortzen joan dira. Hartara, ondasun erkideak, basoak, lurpea edo ibaiak, esaterako, “baliabide naturalen” dimentsiora mugatzen dira, eta, ikuspegi instrumental horretatik, beste helburu batzuetarako bitartekoak baino ez dira. Uste dugu haien ingurunetik banatu daitezkeen eta beste gauza batzuk lortzeko erabili daitezkeen elementuak direla. Ohiko ekonomiarako, adibidez, baso amazonikoaren hektarea bat mozten denean, merkaturatzen denean eta “lur emankor” bihurtzen denean baino ez da ikusgaia (meategia, laborantza-soraa edo abeltzaintza estentsiborako bazkalekua den kontuan hartu gabe). Orduan, haren suntsipenaren bidez, lurraldea osatzen duten bederatzi herrialdeetakoren bateko Barne Produktu Gordinaren hazkuntzan duen ekarpena kontabilizatzen da.

Suntsipen hori dakarten prozesuak aztertu baino lehen, Panamazoniaren inguruko begirada ekonomizista horren baliotasuna aztertu beharra dago. Lehenengo eta behin, bioma amazonikoaren benetako balioa ez dagoelako bertan banan-banan hartutako baliabide natural bakoitzean (hau da, bertan dauden zuhaitzen, mineralen edo animalia-espezieen kopuruan), ekosistema hori eratu eta bakar egiten duten elkarloturen sarean baizik. Alde horretatik, lehen begiradan ikusten ez diren arren lur planetarentzat funtsezkoak diren zenbait “ingurumen-zerbitzu” eskaintzen ditu Amazoniak. Hartara, baso amazonikoek hezetasunari eusteko, oxigenoa sortzeko, karbono dioxidoa harrapatzeko eta hegoaldeko Atlantikoan sortzen diren ur-lurrunezko “ibai hegalariai”<sup>4</sup> erakartzeko duten gaitasuna ezinbestekoa da eskualdeko klima-zikloi eusteko, klimaren egonkortasunari eusteko eta beroketa globala murrizteko (Walker et al., 2020).

Modu berean, lurralde amazonikoko animalia-bizia eta landare-bizia interdependenteak dira. Amazoniarako Lantalde Zientifikoaren esanetan, munduko espezieen hamarrena baino gehiago daude bertan. Hona hemen bertako aberastasuna: 50.000 landare baskular, 371 narrasti-espezie, 1.300 hegazi-espezie, ur gezako 2.406 arrain-espezie eta 425 ugaztun-espezie. Zenbatespenen arabera, zuhaitzen % 80-% 90 animalien menpe daude haien haziak barreiatzeko orduan, eta landare-espezieen % 98raino animalien menpe daude polinizaziorako (SPA, 2021: 2. kap.). Sistema konplexuekin gertatzen den bezala, zatietako bat aldatzen bada, multzoa aldatu daiteke, eta, ekosistema naturalek euren ugalketarako oreka-formak bilatzeko joera duten arren, egia esan, hurrengo epigrafean azalduko dugunez, atalase zehatz batzuk igaroz gero, Amazonia bezalako biomen narriadura itzulerarik gabeko puntuan sartu daiteke.

4 “Ibai hegalariai” aireko ur-fluxu ugari-ugariak dira, lurrun-forma dute, Ozeano Atlantiko tropikaletik datoz eta Amazoniak lurruntzen duen hezetasuna dute elikagai. Bi kilometrorainoko altueran daude, eta badute Amazonasek baino ur gehiago garraiatzerik. Hezetasun atmosferikoko ibai horiek Amazonasek baino ur gehiago garraiatu dezakete, eta, Panamazoniaren gainean, atmosfera gurutzatzen dute Andeeekin topo egin arte. Horren ondorioz, euriak sorrarazten dituzte kontinentean, eta funtsezkoak dira nekazaritzako ekoizpenerako nahiz Latinoamerikako milioika lagunen bizitzarako.



*Naturaren defentsaren alde lan egitea, natura zaintzea, jendearen alde lan egitea ere bada, haien bizitza naturan bertan dagoelako. Natura kaltetuta eta hondatuta badago, jendearen bizitza ere egongo da horrela. Naturari eusteko asmoz defendatzen eta lan egiten ari garen guztietan, jendearen alde, animalien alde, denaren alde ari gara lan egiten.*

HNA. MAGDALENA GONZÁLEZ

Bigarrenik, Panamazoniako aberastasun ikusezina bertan bizi diren herrien eta erkidegoen dibertsitate kulturala ere bada. Hartara, orain dela 12.600 urte gizakiak Amazoniara iritsi zirenetik, antzinako herriek lekua zein paisaiak eraldatu zituzten, eta hainbat landare eta animalia espezie aldatu zituzten (De Souza, 2018; Levis et al., 2017). Teknologiak, jakitateak, mundu-ikuskerak, kulturak, hizkuntzak eta instituzioak sortu zituzten, eta, haien bitartez, beste izaki bizidun batzuekiko harmonian oihan heze tropikalean bizitzen ohitu ziren (Bastos, 2017; Botero-García, 2019; Caldeira, 2017; Castaño, 2019). XVI. mendean, Europak eskualdea kolonizatu zuenean, hamar milioi inguru indigena zeuden gutxi gorabehera. Biztanle-kopuru hori milioi bat baino gutxiagora murriztu zuten XX. mendearen hasieran, *kautxerien*<sup>5</sup> garaian. Gaur egun, zenbatespen berrien arabera, biztanle amazonikoen kopurua 34 milioi inguru lagunekoa da, eta talde kulturalen mosaikoa osatzen dute. Dokumentatu diren hirurehunetik gora nortasun eta herri indigenekin batera, afro-ondorengoen komunitateak, nekazariak eta erriberakoak daudela nabarmendu beharra dago. Bizimoduak eta lurraldearekin dituzten elkarloturak hainbat eratakoak direnez, aurre egiten dioten Amazoniaren ikuspegi kolonialari —eremu huts eta basatia eta jakitoki agortezina dela irizten dion ikuspegiari—.

*Kautxugileek biztanle indigenak zapaltzen zituztela ikusi nuen, eta emakumeak esplotatzen zituztela ikusi nuen. Kautxugileek, hain zuzen ere, esklabo moduan lan egiten jartzen zituzten emakumeak, eta josteko makina ematen zieten ordaintzea inoiz lortzen ez zuten zor moduan. Hortxe konturatu nintzen esplotatu egiten zituztela, eta mingarriegia zen niretzat. Hori dela eta, biztanle indigenei albotxoetatik laguntzen hasi nintzen, emakumea eta lekaimea izanda, ez zidatelako uzten horrelako istiluetan sartzen.*

HNA. MAGDALENA GONZÁLEZ

Izan ere, gizateria Amazoniara egokitzeko eta bilakatzeko prozesu luzea aldatu egin zen XVI. mendean europarrak arrora iritsi zirenean. Ostean, burujabetza nazionalak eratu zituztenez (XVI. mendetik XX. mendearen erdialdera arte), bertako aberastasun biologikoaren, mineralaren, energetikoaren eta giza jakintzaren arlokoaren erauzketa azkartu zen. Hori dela eta, aldaketa handiak egin ziren lurreko eta itsasoko ekosistemetan, eta eragina izan zuten herri indigenen bizimoduetan nahiz demografian. Etnozidio handia gertatu zen, esaten den bezala<sup>6</sup>.

5 **Kautxeria edo kautxuaren genozidioa** 1912tik 1929ra arte Casa Arara enpresa perutarrek Kolonbiako Amazoniako La Chorreran garatu zuen kautxu-esplotazioa da. Sarraskia izan zen eskualdeko indigenentzat, hil egin zituztelako (80.000 lagun baino gehiago) eta, horrez gain, esklabo ere egin zituztelako. Izan ere, erabat ezegonkorrak eta iraingarriak ziren baldintzetan, kautxua erauzten zuten euren lurretatik, eta Casa Ararak industria britainiarrei saltzen zien.

6 XX. mendea baino lehen, jatorrizko estraktibismoak herri indigenen etnozidioa sorrarazi zuen, esklabotza, “zorpetzea” eta familien nahitaezko sakabanaketa pairatu zituztelako, antzinako instituzioak zein antolaerak suntsitu zizkietelako, konkistatzaileen berezko hizkuntzak nahiz erlijioak inposatu zizkietelako, indarkeria zuzena jasan zutelako eta europarrek gaixotasunak ekarri zizkietelako; esate baterako, nafarreria, tuberkulosia, influentza... (Bolaños, 2013; Caldeira, 2017; Domínguez eta Gómez, 1994; Pineda, 2003).

Azken hirurogeita hamar urteotan, gizakiek aurrekaririk gabeko jarduketa garatu dute bioman, eta, horren ondorioz, modu konponezinean mehatxatu da haren biziraupena. Besteak beste, honako prozesu hauen ondorioz, herri indigenen, afro-ondorengoen erkidegoen eta nekazarien kulturak, hizkuntzak eta instituzioak suntsitzen ari dira: monolaborantza ugari ezartzea (agroindustria eta abeltzaintza estentsiboa); baliabide naturalak erauztea (energia fosila, hidroelektrizitatea, meatzaritza); errepideko, portuko eta aireportuko azpiegiturak eraikitzea, salgaien eskala handiko zirkulazioa errazteko; basoa eskala handian moztea; edo landa-inguruneetan migrazio-prozesuak areagotzea langabeziaren ondorioz (SPA, 2021-1, 24. eta 27. kap.). Dena dela, ekonomia estraktibistak ez du Amazoniako ingurumen-zerbitzuen garrantzi globala kontuan hartzen, eta, horrez gain, jakintza indigena baztertu eta albo batera uzten du, horri esker herri horiek basoarekin eta basotik bizi izan diren arren, betiere, mozkin ekonomikoa lortzeko asmoz jakintza horretaz jabetzerik ez badu.

*Erdigunea, dena mugitzen duena, lehenetasuna, merkatu globala da. Ez bizia, ez pertsonen premiak, ezta planeta ere. Erdigunea merkatua da, birtuala edo fisikoa, baina merkatua. Gainera, merkatu aitortu bakarra da, erabat ikusezinak diren beste merkatu batzuk daudenean eta merkatu horiek mundua elikatzen dutenak direnean, egia esan.*

ISA ÁLVAREZ VISPO



## 2.2. Ikusgai dagoen Amazonia eta zabalik dituen zauriak

Aurreko epigrafean bioma amazonikoaren alde ikusezinari eta haren balio neurtezinari buruz hitz egin badugu, orain gero eta modu agerikoagoan ikusten dena edukiko dugu hizpide: “desarrollismoaren”, modernizazioaren, hazkuntza ekonomikoaren eta, azken batean, estatu nazionalen euren lurraldeetan duten burujabetzaren izenean zabalik dituen zauriak. XX. mendeko 80ko hamarkadan-edo, Latinoamerikan eta Kariben, garapenaren, industrializazio protekzionistaren eredutik igaro ziren eredu neoliberalera. Lehenengoak Panamazonia osatzen duten estatuetak merkatu nazionalen lehengaietan eta elikadura-ondasunetan dauzkaten eskariak hornitzea zuen helburu. Bigarrenak, ordea, **nazioarteko**, Europako eta Estatu Batuetako eta, azken urteotan, Asiako **merkatuek baliabide natural eta energetikoetan dituzten eskariei erantzun eta lehentasuna ematen die**. Mende honetako lehenengo hamarkadan, Latinoamerikan “XXI. mendeko sozialismoa” ordezkatu zuen alternatiba ere neurri handi batean baliabide naturalen erauzketan nahiz merkaturatzean oinarritu zen, kutxa nazionalak bete nahian (Gudynas, 2011).

Ekonomia estraktibistaren hegemonia horrek funtsezko bi ondorio izan ditu. Batetik, eskualde-mailan, jarduera ekonomikoa lehen mailako egin da berriro, hau da, herrialdeak mea, landare edo animalia jatorriko lehengaien esportazioan espezializatu dira. Gertakari horrek protagonismoa ematen die lurralde amazonikoei arroan lurraldea duten bederatzi herrialdeak nazioarteratzeko estrategietan. 2019an, esportazio guztiak kontuan hartuta, lehen mailako produktuak % 66,6koak izan ziren Brasilen; %77,9koak, Kolonbian; eta %88,6koak, Perun (CEPAL, 2021). Bestetik, nazioartean, eragile berri bezain ahaltsua agertu da, eta behar besteko gaitasuna du, garapenerako politika estatalak baldintzatzen eta gizarte zein ingurumen arloko ondorio ikaragarriak sortzeko: nazioz haraindiko enpresak eta haien balio-kate globalak.

Joera hori aldatu beharrean, 2020ko COVID-19aren pandemia eta Ukrainako gerragatik lehengaien prezioetan gertatutako gorakada erritmo zein dinamika estraktibistak areagotzen ari dira Amazoniako herrialde askotan (Robinson, 2022).

### 2.2.1. Bizia eta lurraldea merkantilizatzean sortutako ondorioak

Kolonizazioaren garaitik, Panamazonia noiz esplotatuko zain zeuden baliabide naturalen erreserba eskerga izango balitz bezala ikusi da kanpotik. Begirada kolonial horrek merkantilizazioari eta epe laburrari ematen die lehentasuna, eta ez biziaren zein lurraldearen zainketari. Hori dela eta, aurrez aurre egiten du talka indigenek Bizitze Onaren eta bizimodu tradizionalen inguruan dituzten mundu-ikuskerekin. Orain dela gutxi ingurumenari buruz egin diren azterlanek egiaztatu egiten dute herri indigenentzat funtsezkoa dela lurrak edukitzea eta kudeatzea, baso amazonikoak eta haien ezaugarri ekosistemikoak babesteko (adibidez, basoko karbonoa harrapatzea, biodibertsitatea babestea...) (SPA, 2021-1: 14. kap.; Segura Warnholtz et al. 2017; Walker et al., 2020).

Nolanahi ere, merkatu globalek lehengaiak eskatzen dituztenez eta eskualdeko gobernuak garapeneredu estraktibisten aldeko apustua egiten dutenez, Panamazoniako bizitzaren eta lurraldearen gaineko presioa gero eta handiagoa da. Gaur egun, Legez Babestutako Eremuen (LBE) erdietan baino gehiagotan, lurraldearen zenbait babes-mailaren bidez parke naturaltzat jotzen direla eta Amazonas ibaiko arroaren % 25 betetzen dutela kontuan hartuta, baimenduta dago baliabideak zuzenean edo zeharka erauztea (SPA 2021-1: 16. kap.). Modu berean, legez aitortutako 6.491 Lurralde Indigenen (LI) erdiak ia-ia, arro amazonikoaren beste % 25 betetzen dutela kontuan hartuta, kanpoko presioaren mehatxupean daude, bertako lurraldeak lurren salerosketatik kanpo era formalean dauden arren (Pulecio Yate, 2022).



*Lurrik ez daukaten indigenek eta nekazariak ez dute bizitzarik. Zenbait bileratan, zera esan zuen Amazonaseko aitona batek: “lurrik gabeko indigena habiarik gabeko txoria bezalakoa denez, habia horren alde borrokatu beharra dago”.*

HNA. MAGDALENA GONZÁLEZ

Sektore energetikoko nahiz agronegozioetako industria estraktiboen aurrerakuntzagarik jasaten dituzte presio horiek, baita urbanizazioagatik eta garraiorako zein komunikaziorako bideen eraikuntzagarik ere. Azken 35 urteok kontuan hartuz gero, meatzaritza % 656 handitu da; hiriko azpiegitura, % 130; eta nekazaritza zein abeltzaintza, % 151 (MapBiomaz Amazonia, 2020). Horren guztiorren ondorioz, baso-soilketa azkartu denez, arrisku sistemikoa dago gaur egun daukagun bioma amazonikorako. Ondoren, honako hauexek izango ditugu aztergai: baso-soilketak dakarren erronka, meatzaritzaren nahiz energiaren eta nekazaritzako elikagaigintzaren sektoreen ondorioak eta enpresek hornikuntza-kateetan duten erantzukizuna.

### a. Baso-soilketa eta “itzulerarik gabeko puntua”

Estraktibismoaren ondorioz, basoak soiltzen dira, eta ekosistema amazonikoak narriatzen dira. Hori dela eta, klima-aldaketa globalarekin batera, eskualdeko basoen eta ur-sistemen tenperatura aldatzen da. Gaur egun, badakigu 2018ra arte oihan amazonikoak 870.000 km<sup>2</sup> galdu zituela, hau da, jatorrizko azaleraren % 14. Baso-soilketa maila nazionalean aztertuz gero, 2020ra arte Boliviak bertako baso amazonikoaren % 8 galdu du; Brasilek, % 18; Kolonbiak, % 11,7; Ekuadorrek, % 10; Guyana Frantsesak zein Guyanak, % 3 eta % 1, hurrenez hurren; Peruk, % 8; Surinamek, % 4; eta Venezuelak, % 4 (Costa, 2020).

Azalera horren erdia ia-ia azken 25 urteotan suntsitu da bereizi gabeko mozketaren eta sute naturalen edo eragindakoen ondorioz. 2019an baino ez, Brasilgo Amazoniak baso-guneen 72.501 km<sup>2</sup> galdu zituen suteen ondorioz, hau da, aurreko urtean baino % 67 gehiago (Irlandakoa besteko azalera)<sup>7</sup>.

Baso-soilketa fenomeno orokorra eta etengabea da urteen joan-etorrian. Baso-soilketaren % 87 eremu babestuetatik eta lurralde indigenetatik kanpo gertatu bada ere, % 8 eta % 5 unitate horietan gertatu zen, hurrenez hurren. Informazio horiek agerian uzten dute lurraldearen legezko aitortzak modu nabarrian murrizten dituela, erabat desagerrarazi ez arren, lurralde amazonikoko baso-soilketaren tasak (SPA, 2021-1: 16. kap.). Nolanahi ere, klima-aldaketaren eta baso-soilketaren ondorioz sortutako konbinazioak % 58raino murriztu lezake Amazonaseko zuhaitzen dibertsitate aberatsa 2050. urterako, eta espezieek euren habitat naturalaren % 65 galdu lezake batez beste (SPA, 2021-1: 23. kap.). Zenbait autorek adierazi dutenez, jatorrizko baso amazonikoaren suntsipenaren % 20ra edo % 25era iristen garenean, inguru hori sabana bihurtzeko prozesua atzeraezina izango da (Nobre eta Lovejoy, 2018).

Klima Aldaketarako Lantalde Zientifikoak lau atalase edo “itzulerarik gabeko puntu” antzeman ditu guztira, eta, hortik aurrera, ekosistema amazonikoek erresilientziarako eta egokitzapenerako duten gaitasuna galdu lezake<sup>8</sup>. Egin berri den azterlanaren arabera, gaitasun horiek baso amazonikoaren hiru laurdenetan gutxitu dira dagoeneko (Boulton et al., 2022). Horrek esan nahi du ekosistemak lehorte luzeagoak jasaten dituela eta lehortearen maiztasuna handiagoa dela. Era berean, lehen negutegi-efektuko gasak harrapatze-

7 Ikus INPE-Queimadas Programaren webgune hau: <http://queimadas.dgi.inpe.br/queimadas/portal>

8 “Orain arte, honako hauxe hartzen da kontuan Amazoniako oihan tropikaletarako inflexio-puntuen atalase zenbatetsietan: (1) guztira urtero urteko 1.000 mm edo urteko 1.500 mm baino euri gutxiago egitea; (2) urtaro lehorrak zazpi hilabete baino gehiago irautea; (3) defizit hidrikoaren gehieneko balio metatuak urteko 200 mm edo urteko 350 mm baino handiagoak izatea; (4) luraren oreka-tenperatura 2° C gehitzea; eta (5) arro osoko baso-soilketa metatua % 20-% 25etik gorakoa izatea” (SPA, 2021-1: 24. kapitulu).

ko orduan baso amazonikoek zeresan handia dutela esan badugu ere, zuhaitziak galtzean badago fluxua iraultzerik harik eta karbonoa isurtzen duen lurralde garbi bihurtu arte, 2005eko eta 2010eko lehorreetan gertatu den bezala. Joera hori orokortuko balitz, egoera ezezaguna sortuko litzateke, eta, horren ondorioz, beroketa globala azkartu, biodibertsitatea galdu eta muturreko klima-fenomenoak agertuko lirateke. Edo-nola ere, baso-soilketaren zati handiena asmo txarrekoa denez, giza ekintzaren menpe ere badago atalase horiek urteen joan-etorrian aurreratzeko edo atzeratzeko aukera (SPA, 2022: 22. eta 24. kap.).

## **b. Meatzaritzaren eta petrolioaren arloko estraktibismoak gizartean eta ingurumenean duen eragina**

Panamazonian, meatzaritzak eta petrolioaren erauzketak 208 milioi hektarea dituzte esleituta euren jarduerarako (oihanaren azalera guztiaren % 24,5) (RAISG, 2018). Hori dela eta, lurraldeko gizarte eta ingurumen arloan eragina duten iturri nagusiak dira.

Meatzaritzari dagokionez, badago legez kanpoko meatzaritzak gizarte eta ingurumen arloan sortutako ondorioak eskala handiko meatzaritzak sortutakoetatik bereizterik, eta, azken hori araututa badago ere, gizarte-gatazkarako beste modu batzuk ere sorrazten ditu lurraldean.



Azken horri dagokionez, gaur egun meatzaritzako 45.000 inguru emakida daude indarrean, eta azalera amazoniko osoaren % 18 betetzen dute. Erdiak-edo (21.536) eremu babestuetan eta lurralde indigenetan bertan daude, eta eragin zuzena dute talde indigenen lur moduan legez aitortuta dauden lurraldeetan (SPA, 2021: 19. kap.). Ingurumenaren arloko ondorioen artean, negutegi-efektuko gasen (NEG) isuria eta elementu toxikoen isuriek zein ihesek uretan sorrazitako kutsadura nabarmentzen dira. Ondorioen intentsitatea eta arrazoiak desberdinak dira mineral batetik bestera. Zilarraren erauzketa, esaterako, intentsiboa da isurietan, eta, orain arte bere ekoizpena urri samarra den arren, urteko 15 mila tona igoko da hemendik 2050era, teknologia fotovoltaiakoaren eta termosolarraren eskaria estaltzeko baino ez. Beste mineral batzuek, kobreak, adibidez, NEG aztarna txikiagoak dituzte, baina haien eskaria handiagoa da (World Bank, 2020).

Mineral batzuk, bauxita, kobrea eta burdina, adibidez, legez erauzten dituzte enpresa handiek. Urrearen meatzaritza, ordea, legez kanpokoa da neurri handi batean. Nolanahi ere, makinak ere behar ditu; esate baterako, miatzeko zulagailuak eta hondeamakina hidraulikoak, bere ekoizpena modu nabarian handitu delako azken urteotan, urreak nazioarteko merkatuetan duen prezio garestiaren eraginez. Izan ere, kalkuluen arabera, legez kanpoko meatzaritzan diharduten 4.472 udalerrri daude Amazonia osoan (RAIG, 2020). Jarduera hori talde kriminal antolatuen kontrolpean dago, eta honako jarduera hauekin ere badute lotuerik: diruaren zuriketa, pertsonen trafikoa, talde armatuen finantzaketa, funtzionario publikoen ustelkeria... (Quijano Vallejos et al., 2020).

Zenbatespenen arabera, 2016an, errearen ekoizpen guztiaren % 28 legez kanpo erauzi zuten Perun; % 30, Bolivian; % 77, Ekuadorren; % 80, Kolonbian; eta % 90, Venezuelen (Wagner, 2016). Urrearen meatzaritzak aldaketak zein mugimenduak sortzen ditu lurzoruan minerala bilatzeko orduan, baina, horrez gain, ibaietan metatzen diren tonaka jalkin ere sortzen ditu. Gainera, urrea eta ezpurutasunak banatzeko orduan merkurioa darabiltenez, urak kutsatzen ditu, eta animaliak zein biztanle indigenak pozoitzen ditu. Azkenik, lehen aipatu denez, meatzaritzak jatorrizko basoaren soilketa azkartzen du. Horrela, adibidez, 2000tik 2015era, Perun, Bolivian eta Ekuadorren meatzaritzan ziharduten Amazoniako lurralde indigenetako baso-soilketaren erritmoa meatzaritzarik gabeko lurraldeetakoa baino hiru aldiz txikiagoa izan zen gutxienez (Quijano Vallejos et al., 2020).

*Iruditzen zait ikuspegi panamazonikoa ikuspegi garrantzitsua dela, herrialdeok, erkidegook eta herriok partekatzen ditugun errealitateak daudelako. Kolonbian, badago legez kanpoko meatzaritzarik, baina Brasilen eta Venezuelen ere bai, edo, Perun, Ekuadorren eta Kolonbian, badago estraktibismoa... Norbera lurraldean zerbait modu sistematikoan gertatzen dela ikusten hasten denean, jakin badaki ekintza-eremu handiagoa zehazten duten ereduak daudela.*

MARÍA TERESA URUEÑA

Meatzaritzarekin batera, petrolioaren esplotazioa gatazka ekosozialaren beste modalitate bat da Panamazonian. Lurraldean agerpena duten estatuetakoa hiru munduko petrolio-erreserba handienak dituzten lehenengo 20en artean daude: Venezuela (1.a), Brasil (14.a) eta Ekuador (17.a) (Business Insider, 2018). Sarritan, honako hauexek dira petroliogintzaren ondorioak: uraren eta lurraren kutsadura, NGen isuria, azpiegituren eraikuntzarekin lotutako baso-soilketa, lurren pilaketa eta nahitaezko lekualdaketak.

Testuinguru horretan, landa-ingurune eta, neurri txikiagoan, hiri-ingurune Amazoniako biztanleen eskubideak urratzen dira ingurumenaren arloan (esate baterako, ura eta ingurumen garbi bezain osasungarria edukitzeko eskubidea), arlo sozialean (aurretiazko kontsulta aske eta informaturako eskubidea,



elikadurarako eskubidea edo osasun bateraturako eskubidea) eta arlo pertsonalean (giza eskubideen defendatzaileak kriminalizatzen dituztenean, adierazpen askatasuna mugatzen dietenean edo euren bizien aurkako erasoak jasaten dituztenean). Petrolioaren zein meatzaritzaren kasuan, gizarte eta ingurumen arloko ondorioak antzekoak dira, eta, sarritan, emakumeek ondorio bereizgarria jasaten dute, hiri-inguruneetan eta meatzaritzako zein petroliogintzako egonlekuetan generoarekin lotutako berariazko arazoak agertzen direnean; esate baterako, prostituzioa, umeen esplotazioa, tratu txarrak, familia barruko indarkeria edo txirotasuna.

*Ezin gara ingurumenaren defendatzaileak izan giza eskubideak defendatzen ez baditugu, eta, modu berean, ezin ditugu giza eskubideak defendatu ingurumena defendatzen ez badugu. Hori ez da horrela. Ezin ditugu banatu.*

LISA LYNN

Indarkeria horiei erantzuteko asmoz, eskualdeko erresistentzia-mugimenduak abian jarri direla ere ikusten da. Ekuadorreko ekialde amazonikoan, Texaco Petrolio Konpainiak Kaltetutakoen Batasunak (UAPT) *“Metxeroak itzali, bizia piztu!”* ekimena abian jarri zuen orain dela gutxi, petrolioaren erauzketa-prozesuan sortzen diren gasak erretzeko asmoz petrolio-ustategiek gau eta egun 400 metxero piztuta dituztela salatzen. Ibilbide luzeko gatazka da, orain dela mende erdi baino gehiago sortu zelako, lehenengo petrolio-hobiak aurkitu zituztenean. 1964tik 1990era arte, Texaco petrolio-konpainiak (Chevronek erosi zuen 2001ean) bizia eta lurraldea inolaz ere errespetatu gabe lan egin zuen. Petrolioaren isuriak, gas toxikoen igorpena, zaratak eta minbizi-kasuen gorakada, emakumeen artean, batez ere, etengabeak izan ziren. Orduan, UAPTen inguruan antolatutako tokiko erkidegoek *“Texaco Toxikoa”* kanpaina jarri zuten abian, kasua salatzeko eta ordaina lortzeko. Dena dela, 1990ean lurraldetik alde egin zuenetik, enpresa iparramerikarrak bere erantzukizuna saihestea lortu du Ekuadorreko justiziaren aurrean, eta, haren ordeztze, beste enpresa batzuek jarraitu dute lanean (Petroamazonas estatala, besteak beste). Metxeroen aurkako ekimena oraintsu amaitu da, talde zaurgarrienaren ordezkariak diren bederatzi neskatilak ekin-tza konstituzionala aurkeztu dutenean, etorkizunari begira minbizia pairatzeko aukerak dituztelako, adingabeak eta emakumeak direla kontuan hartuta (Sánchez, 2022).

Horrelako kasuek egiaztatzen dute nazioz haraindiko enpresek zigorgabetasunez lan egiten dutela, baina, horrez gain, hainbat eta hainbat oztopo ere badaudela biktimek justizia eskuratzeko aukera izan dezaten. 2.2.2. epigrafean ikusiko dugu nola ari diren egituratzen nazioarteko elkartasun-sareak, oztopo horiek desagerrarazteko. Lehenago, ordea, agroindustriak gizarte eta ingurumen arloan sortzen dituen ondorioak jorratu behar ditugu oraindik.

### c. Agronegozioak: monolaborantza, abeltzaintza

Amazoniako jatorrizko basoaren mozketaren historia luzea den arren, joan den mendeko hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetara arte, ez zen arazotsua, herri indigenen autokontsumorako laborantzak zirelako gehienbat edo nekazarien kolonizazioko lursailak zirelako eta honako hau zutelako ezaugarri bereizgarri: polilaborantza-moduak, teknologia bakunen erabilera eta merkataritza-ekoizpen mugatua (Pulecio, 1982). Laurogeiko hamarkadatik aurrera, ordea, jatorrizko basoaren suntsipena eskala handikoa izan zen, abeltzaintza estentsiboari zein sojaren, artoaren nahiz palmondo-olioaren monolaborantzei sarrera emateko, eta, gaur egun, Panamazoniarako mehatxu nagusietakoa dira, gainera. EGarapen teknologikoaren ondorioz, apurka-apurka, motozerrak hasi dira erabiltzen aizkoren ordeztze; traktoreak, aitzurren ordeztze; ongari kimikoak, organikoen ordeztze; hazi transgenikoak, tradizionalen or-

dez; eta droneak zein sateliteetako irudiak, aurrez aurreko mapaketen ordeiz. Berrikuntza eta kudeaketa-modu horiek, gainera, atzerriko enpresek ezarri dituzte sarritan. Alde horretatik, Amazoniako barruko merkatuak ez du erabakitzen zein den basoa mozteko dinamismoa, nekazarien kolonizazioaren garaian gertatu zen bezala, eta, gaur egun, eskariaren eta **nazioarteko nahiz nazio-mailako merkatuetan** kotizatutako prezioen hazkuntza-zikloak dira **erritmoa zehazten dutenak**.

Hartara, lurzorua erabilera aldatu egin denez, Amazoniako paisaia dibertsoa ere ari da eraldatzen nekazaritzaren nahiz abeltzaintzaren zabalkuntzan oinarritutako ekonomian, datuek egiaztatzen duten bezala. Izan ere, adierazten dute 2001etik 2018ra eremu babestuen barruan nekazaritza-erabilera kokatutako gunek % 220 baino gehiago hazi zirela, 53.269 km<sup>2</sup> bete zituztela eta haietatik % 74 basoak zirela 2000an (SPA, 2021: 16. kap.). Joera hori arropa osatzen duten herrialde gehienetan errepikatzen da, eta, bertan, gizarte zein ingurumen arloko ondorio berberak ematen dira honako hauek gora egin dutelako: baso-soilketa, monolaborantzen ereintza berrietarako lurren pilaketa, lurzorua narriadura eta CO<sub>2</sub> isuriak.

*Urraketek eredu ekonomikoarekin dute zerikusia. Eredu hori baliabide fosilen erauzketan dago oinarrituta. Hala ere, naturaren esplotazioan oinarritutako eredu ere bada, gainera. Pilaketa-eredua da, baina gizakiek gizakien arloan egindakoa ez ezik, gizakiek naturan bertan egindakoa ere bai, nagusitasunean oinarrituta dauden harremanak direla kontuan hartuta. Gurea ez den zerbaiten jabeak garela uste dugu.*

MARÍA TERESA URUEÑA

**Brasil**, esaterako, munduko behi-haragiaren esportatzaile handiena da. Jarduera hau herrialdeko BPGd-ren % 7koa da, baita bertako esportazioen % 4,6 ere. Datu ekonomiko horien ondorioz, gizarte eta ingurumen arloko galerak sortzen dira, herrialdeko ganaduaren % 40 estatu amazonikoetan dagoen neurrian, zenbatetsi egiten delako Brasilgo baso amazonikoaren galeraren % 80k lotura zuzena edo zeharkakoa duela abeltzaintzarekin (Costa, 2020). Izan ere, Brasilgo Amazonian soildutako lurraren zati handiena abeltzaintzarako lursail bihurtu zuten (% 89), eta, % 9, ordea, monolaborantzak, soja, batez ere, ekoizteko erabili zen. Dena dela, bi hamarkadatan baino ez, Brasilgo jatorrizko basoaren % 18,95 beste erabilera batzuetarako erabiltzen da orain, Alemania, Italia eta Greziak batera osatutako azalera baino handiagoa, alegia (SPA, 2021: 15. kap.).

**Boliviaren** kasuan, 2019an, Evo Moralesek 3973. Dekretu Gorena eman zuen, Santa Cruzeko eta Beniko departamentu amazonikoetan basoen inausketa eta erreketak kontrolatua baimentzeko. Onartu ondoren, Boliviako bi milioi hektarea baso amazoniko suntsitu zituzten suteak gertatu ziren, eta ia-ia erdiak eremu babestuetan jazo ziren. Dekretu horren bidez, sojaren laborantzarako eta abeltzaintzarako erabiltzen den nekazaritza-muga boliviarra handitu zen, Txinako merkatura horrelako produktu gehiago esportatzeko asmoz. 2020an suteek lurraldea berriro ere mehatxupean jarri zutenean, Jeanine Áñez bitarteko presidentearen gobernuak indarrrik gabe utzi zuen dekretua. Nolanahi ere, neurri horiek ez dira nahikoak ekintzaile askorentzat, Moralesen eta Áñezen gobernuek onartutako legeek baso-soilketa suspertzen jarraitzen dutelako (Costa, 2020).

**Ekueador** Latinoamerikako olio-palmondoaren bigarren ekoizlea da eta munduko seigarrena. Produktu horren nazioarteko eskaria handia da, industrializatutako produktuak, kosmetikoak, garbiketarako produktuak eta erregaiek ekoizteko erabiltzen delako. Hori dela eta, baso-soilketaren eta nekazaritzaren hedapenaren arrazoi nagusia da bere laborantza. Mehatxu horiek eragin zuzena dute Ekuadorreko Amazonian, bertako lurraldeetan ekoizpen nazional guztiaren % 13 ekoizten delako (ibid.).



Modu berean, azken urteotan, olio-palmondoaren laborantzak eta kakaoaren zein kokaren laborantzak gora egin dute **Peruko Amazonian**. Hain zuzen ere, Peruko olio-palmondoaren laborantzak % 700 baino gehiago igo direnez, 2000. urtean produktu horren laborantzarako 15.000 hektarea bazeuden ere, 108.000 baino gehiago zeuden 2019an. Orintsu egindako azterlanaren arabera, Peruko olio-palmondoaren aurrerapenaren ondorioz sortutako baso-soilletak CO2ren 2.800 M tona metriko baino gehixeago askatu ditu atmosferara (Oxfam, 2021).

Agronegozia hedatzeko politika horiek guztiak mehatxua dira Amazoniarentzat, baina, horrez gain, arazoa ere badira nazioarteko konpromiso klimatikoetarako. Parisko Hitzarmenak eta Glasgowko Hitzarmenean egin zizkieten berrikuspenak eta berriztapenak nabarmendu egiten dute zeinen garrantzitsua den planetaren batez besteko tenperaturarenigoera 2º C-tik beherakoa izatea.

### 2.2.2. Nazioz haraindiko enpresen erantzukizuna

Mundu globalizatu honetan, nazioz haraindiko 40.000 inguru enpresa (NHE) daude. Azken hamarkadotan, NHE horietako batzuk hainbeste hazi direnez, haien aberastasuna herrialde askotakoa baino handiagoa da. 100 gobernu eta enpresa aberatsenei buruzko zenbait azterketaren arabera, gaur egun, 69 enpresak dira; eta gobernuak, aldiz, 31 baino ez (Global Justice Now, 2016). Panamazoniaren suntsipena ez litzateke gaur egungo dimentsioetara iritsiko, estatuen eta horrelako enpresa batzuen adostasunik gabe, aipatutako sektoreetan, batez ere (agronegozioak, meatzaritza eta hidrokarburoak). Politika estraktibistek lurraldean ezartzeko erraztasunak ematen dituzte, baina, horrez gain, zerbait txarto badoa eta ingurumenean ondoriorik badago edo giza eskubideak urratzen badira, ezin zailagoa da enpresa



horiek kontuak ematea, lanean ari diren hornikuntza-kateak opakuak direlako. Horrelako kasuetan, biktimak dira frogak arakatu behar dituztenak, enpresaren erantzukizuna antzeman behar dutenak eta jurisdikzio eskudunera jo behar dutenak kalte-ordainak eskatzeko. Sarritan, prozesu hori luzea eta garestia denez, biktima asko hil egiten dira justizia lortu baino lehen. Azken urteotan, ordea, aktibismo-modu desberdinak ere sortu dira, enpresa horien zigorgabetasunari muga jartzeko.

*Nazioz haraindiko enpresak sistema kapitalistaren ardatza, eragile nagusietakoa, dira. Sistema horren gaitz guztien adierazgarri dira edo agerian jartzen dituzte: nola edo hala ahalik eta mozkin gehien lortzea, testuinguru neoliberal horretan ingurumenaren arloko eskubideak eta babesak desarautzen doazela eta mozkinen gehieneko lorpenari hegoak ematen zaizkiola kontuan hartuta. Azken urteotan, gainera, krisi ekologikoarekin eta baliabideen agorpenarekin bat egiten du, baita sistemaren krisiarekin berarekin ere, ezin duelako XX. mendearen erdialdetik garatzeko erabili dituen bide berberetatik garatzen jarraitu. Hori dela eta, esplotaziorako eta desjabetzarako prozesuei eman behar die buelta.*

JULIA MARTÍ

Estrategia horietako lehenengoa diruaren jarraipena egitea da, proiektu estraktiboen atzean dauden finantzaketa-iturriak aztertzea eta jendaurrean azaltzea. Amazon Watchek 2020an argitaratutako azterlanean adierazten denez, Europako 19 erakunde finantzariok 10 mila milioi dolar baino gehiago inbertitu zituzten Amazonian petrolioaren eratzeko proiektuetan, hau da, 155 milioi petrolio-kupel baino gehiagoren baliokidea, 2009tik 2019ra. Erakunde horien artean, banku eta inbertsio-fondo boteretsuak daude; esate baterako, ING Belgium, Credit Suisse, UBS eta BNP Paribas SA, Genevan, Suitzan; Natixis, Parisen, Frantzia; eta Rabobank, Utrecht, Holandan. Banka pribatuak finantzatzeko merkataritzaren % 85 dago seien esku, eta erregai fosilak esplotatzen dituzten enpresei eman diete babesa; esate baterako, GeoPark, Amerisur, Frontera eta Andes Petroleum. Proiektuek 30 milioi hektarea baino gehiago betetzen dituzte mendebaldeko Amazonian, hau da, Kolonbia, Ekuador eta Peru artean banatutako basoen % 25 (Amazon Watch, 2020). Ildo horretatik, “Money to Burn” txostenean (Global Witness, 2019) adierazi denez, banku eta fondo europarrek (haien artean, Banco Santanderrek) erantzukizuna dute Amazoniako baso-soilketari onura ateratzen dioten proiektu agroproduktiboen finantzaketan.

Elkarlotura horiek agerian jartzen diren neurrian, aktibisten sare globalak estrategia bateratuak diseinatzeko, erakunde finantzarioak kontzientziazteko, inbertsio etikoa egiteko edo, zuzen-zuzenean, desinbertitzeko. Azken fronte horretan, inspirazio erlijiosoko gizarte-mugimenduek eta fedean oinarritutako erakundeek izan duten zeresana nabarmentzen da. Laudato Si Mugimenduak<sup>9</sup> Erregai Fosiletako Desinbertsioaren alde abian jarritako kanpainak elizbarruti eta kongregazio katoliko askoren konpromisoa lortu du, euren inbertsio-fondoetatik berriztagarriak ez diren enargietako inbertsioak ateratzeko. Modu berean, Latinoamerikako meatzaritzak kaltetutako pastoralistak, aktibistak eta erkidegoak elkartzen dituen Elizen eta Meatzaritzaren Sareak Meatzaritzako Desinbertsioa kanpaina jarri du abian, eta Europako zenbait herrialdetan aurkeztu berri du, Europan tokiko elizekin eta erkidego erlijiosoekin elkartasun-loturak estutzeko (Elizak eta Meatzaritza, 2022).

Estrategietako bigarrenak enpresentzako arauketa berriak sortzea dauka helburu, nazioz haraindiko enpresei betebeharrak lotesleak inposatzeko eta justiziaren lorpenetarako dauden oztopoak desagerrarazteko (CIDSE, 2017). Ekimen horiek jarri dira abian, enpresek kontuen berri emateko borondatezko neurriak ez

9 <https://laudatosimovement.org/es/divest-es/>

direlako eraginkorrak izan; esate baterako, Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak edo ELGAK Enpresa Nazionalen buruz zehaztutako Gidalerroak, ezagunenetako bi aipatzearren. Bi mugarriak garrantzitsuak direla aitortu arren, hona hemen diagnostikoa: ez dira nahikoak, enpresen praxi txarrak bere horretan dirauela kontuan hartuta.

Kontuak ematen dituztela eta justizia lortzen dela bermatzeko, hainbat erakundek eta sarek Itunaren aldeko Aliantza<sup>10</sup> eratu zuten 2013an, Nazio Batuen esparruan nazioarteko tresna loteslea egin zedila eskatzeko eta, horrela, nazioz haraindiko korporazioek nahiz beste enpresa batzuek giza eskubideen arloan garatutako abusuei aurre egiteko. 2014ko ekainean, Giza Eskubideen Kontseiluak 26/9 Ebazpena hartzea lortu zuten, eta, horren bidez, tresna hori sortzeko agindua eman zen. Harrezkero, itun<sup>11</sup> horren testua negoziatzeko asmoz urtero gobernu arteko lantaldeak antolatzen dituen negoziaketa-bileretan (zazpi, orain arte) parte hartu dute.

Eskualde-mailan, Europar Batasunean antzeko aukerak sortu dira azken urteotan. 2021eko urtarrilaren 1ean, zazpi urtetan gogor negoziatzen egon ondoren, 2017/821 (EB) Arauketa sartu zen indarrean, eta “gatazkapeko mineralen” (eztainua, tantalioa, tungstenoa eta urrea) inportatzaile zuzenetan du eragina Europako merkatuan. Izan ere, horren ondorioz, arriskuak antzeman, prebenitu eta gutxitu behar dituzte euren hornikuntza-katean (BOE, 2017). Hilabete batzuk geroago, azaroan, Europako Batzordeak inportatutako baso-soilketari buruzko EB Erregelamendurako proposamena aurkeztu zuen (European Commission, 2021). Gaur egun, negoziatzen ari dira, eta, aurreikuspenen arabera, antzeko betebeharrak inposatuko zaizkie zenbait produkturen hornikuntza-kateetan parte hartzen duten enpresei (soja, palmondo-olioa, kakaoa, kafea, haragia eta egurra).

Bi arauketak sektorialak dira, eta gabezia handi batzuk dituzte. Hori dela eta, Europar Batasunak berak Gobernu Korporatibo Jasangarriari eta Bidezko Eginbideari buruzko Zuzentarau Europarrerako proposamena argitaratu du, Europako enpresetako jarduketetan eta atzerrian dituzten hornikuntza-kateetan giza eskubideen eta ingurumenaren babeserako neurriak ezartzeko (European Commission, 2022). Aktibisten zenbait taldek adierazi dutenez, badago ageriko arriskurik, lobby enpresarialak arauketa horien testua ahultzen ahalegindu daitezkeelako, harik eta paper erre bihurtu arte. Alde horretatik, honako hau izan behar da arauketa horien helburua: enpresei giza eskubideak eta ingurumena babesteko dituzten betebeharrak betearaztea eta, horrez gain, enpresek egindako kalteetako biktimek justizia lortzeko gainditu behar dituzten oztopoak desagerraraztea. Alboan, CIDSE sareak abian jarritako **Justizia Eskuratzeko Aukera** kanpainarekin bat egin dugu, eta honako hau du helburu: negoziaketa horien edukia hurbiletik zaintzea, ezkutuko interesak agerian jartzea, eta enpresentzako arauketetan erkidegoen zein lurraldeen eskaerak kontuan hartzen direla ziurtatzea.

Kapitulu honetan, agerian jartzen dira Amazonia okupatzeko eta onura emankorra ateratzeko ereduak sortutako ondorioak, eta inflexio-puntu edo itzulerarik gabeko puntuetara iristeko aukera dagoela azaltzen da, hortik aurrera ekosistemek erresilientziarako eta egokitzapenerako duten gaitasuna galtzen dutela kontuan hartuta. Nolanahi ere, lehen aipatu denez, eredu horren ondorioak ez dira ingurumenaren arlokoak bakarrik: gizarte eta ingurumen arlokoak dira. Hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, Amazonian eredu harrapakari horri eusten dioten botere-harreman desberdinek gizarte eta ingurumen arloko krisia azkartzen dute, eta, bertan, zaurgarriak eta ikusezinak diren giza taldeek modu berezian jasaten dituzte kalteak; Amazoniako emakume indigenek, besteak beste, generoarekin lotutako berariazko bereizkeria askori eta askori aurre egin behar dietela kontuan hartuta.

---

10 <https://www.treatymovement.com/>

11 Osaketa irekiko gobernu arteko lantaldeak nazioz haraindiko enpresek eta beste enpresa komertzial batzuek giza eskubideei dagokienez izan beharreko jarrerari buruz antolatutako zazpigarren bilera 2021eko urrian egin zen, NBEn itun loteslearen hirugarren zirriborroari buruz eztabaidatu zenean. Oraindik ere, noiz onartuko zain dago azken testua. Agiri guztiak hemen-txe daude eskuragarri: <https://www.ohchr.org/EN/HRBodies/HRC/WGTransCorp/Session7/Pages/Session7.aspx>

## 3. AMAZONIAKO EMAKUMEAK ETA EKOFEMINISMOAK

### 3.1. Emakume indigenak: indarkerien interseksionalitatea

Naturari gertatzen zaion bezala, ohiko eredu ekonomikoak emakumeak ere jartzen ditu icebergaren alde ikusezinean. Emakumeen esparrua eta gizonen esparrua banatzen dituzten eraketa kulturaletan oinarritutako genero-zeregin tradizionalak agerian uzten dute bien, emakumeen eta naturaren, gaineko menderakuntzaren jatorria sistema heteropatriarkalak inposatutako botere-harreman bidegabeetan dagoela. Planetan, han-hemenka hedatzen diren egitura horiek eredu honetan ikusezinak diren alderdiek gainditu beharreko bereizkeriak gainjartzen dituzte. Hartara, epigrafe honetan aztergai dugun ikuspegia den indarkerien interseksionalitateari esker, agerian jartzen da munduko emakumeen artean eragina duten hainbat zapalkuntza gainjarrita daudela.

Planeta kliman eta naturan ondorio larriak dituen krisi konplexuan dago murgilduta. Hori dela eta, agerikoa denez, gatazka eta tentsio politiko zein sozialak ere larriagotu dira. Panamazonia osatzen duten herrialdeetako landa-ingurune zein hiri-ingurune biztanleen dibertsitate kultural eta etnikoaren jakitun, emakume indigenen errealitatea bioman agerian jartzea izango dugu xede kapitulu honetan. Izan ere, generoagatiko desberdintasun eta bereizkeriengatik ez ezik, emakume horiek beren arraza- edo etnia-izaeragatik ere badira nahikoa zaurgarriak diren giza taldeak.

#### a. Estraktibismoak gizartean eta ingurumenean duen eragina generoaren ikuspegitik

Garapen jasanezinaren ereduak oihan amazonikoa “jakitoki agortezintzat” jotzen duenez, suntsitu egiten du, eta, horren ondorioz, gaur egun, lurralde horren erdia baino gehiago dago giza ekintzak bultzatutako esplotazioaren baten eraginpean; esate baterako, baliabide naturalak gupidarik gabe erauztea, megaproiektuak instalatzea, basoa soiltzea, ura kutsatzea edo fauna zein flora suntsitzea. Jarduketa suntsitzaile horiek, ingurumenean ez ezik, gizartean ere badute ondorioz: nahitaez migratzea; Amazoniako biztanleak txirotzea; giza eskubideak urratzea; defendatzaileak, aktibistak eta liderrak jazartzea eta erailtzea; edo herri indigenen kultura eta nortasun anitzak galtzea. Arrakala sozialen eta desberdintasun ekonomiko, kultural, etiko eta genero-arlokoen ondorioz, ingurumenaren narriadurak eragin oldarkorra goa eta zuzenagoa dauka emakume indigenen artean (Arana, 2017).

*Ez dute arrantzan joateko eskubiderik, ura kutsatuta dagoelako eta arrainak hil egiten direlako. Legez kanpoko meatzaritzak egoera zailtzen du. Amazonian egon nintzeneko azken aldian, errepidez joan nintzen, eta hori oso mingarria da, basoak kentzen ari zaizkigulako. Herri indigenek habitata kentzen ari zaiela salatzen jarraitzen dute. Eskubideak kendu dizkigute, geure oihanean, geure lurraldean egoteko eskubidea. Gure habitataren suntsipena. Deltan, ez dugu ez etxebizitzarako, ez osasunerako, ez elikadurarako eskubiderik. Horrexegatik, jendeak erkidegoetatik alde egiten du.*

TERESA FARRERA

Klima-aldaketa-erakiko esposizioan eta zaurgarritasunean dituzten aldeak eztaba daezinak dira. Oihan amazonikoan, lurralde indigenak elikagaiak, sendagaiak eta aterpea eskaintzen ditu, kontakizunak nahiz historia gordetzen ditu eta indigenen mundu-ikuskeraren, espiritualtasunaren eta hezkuntzaren oinarria



eratzten du. Herri indigenen biziraupen fisikoa eta kulturala lortzeko, bertako lurraldeak osasungarri eta ondo babestuta egon behar dira beti. Lanaren banaketa sexualaren ondorioz, mundu-mailan gertatzen den bezala, urteen joan-etorrian Amazoniako emakumeek eta gizonak tradizioaren arabera bete dituzten zereginak herrien egiturak zehazten jarraitzen dute gaur egun. Hartara, Amazoniako landa-inguru-neetan, ugalketa-zikloen, biziaren zainketaren, nekazaritzako jardueraren eta hazien inguruko jakintza esleitzen zaie emakumeei, eta familiaren biziraupenaren eta etxea mantentzearen arduradunak dira. Ura, elikagaiak eta beste ondasun natural batzuk haien ardurapean daudenez, haien erantzukizunak ingurune naturalaren menpe daude zuzen-zuzenean (Gaia Amazonas). Klima-aldaketak eta industria estraktiboen eraginak uraren agorpena eta kutsadura azkartzen dituzte, baita faunaren zein floraren eta lurzoru emankorren suntsipena ere. Hori dela eta, emakumeak lekualdatu egin behar dira nahitaez, euren familiari eta erkidegoari eusten dietela ziurtatzeko (NBE Emakumeak – PRO Amazonía, 2019). Era berean, bizibiderik ez dagoenez, gizonak ere lekualdatu behar dira, eta, sarritan, familia eta landa-ingurunea bera ere uzten dituzte bertan behera, lan bila joateko. Horiek horrela, gaur egungo aldaketa azkarrek guraso bakarreko familien proportzioa areagotzen dute, eta, bertan, emakumeak dira erantzukizuna euren gain hartzen dutenak benetan latza den testuinguruan.

*Venezuelan, azken urteotan, elikagaien eskasia, itzalketa elektrikoak, etxeratzeko aginduak, indarkeria... izan dira nagusi. Testuinguru horrek hirietan du eragina, baina askoz ere txarragoa da oihanean bertan. Neurri batean, horren ondorioz, indigena asko errearen meatzaritzan lan egiten hasi dira, beharrezkoa irabazi ahal izateko. Oso erraza izango litzateke jendeak meatzaritzan lan egin ez dezala esatea, baina, egia esan, ezinbestean egin behar dute, besterik gabe, ostantzean ez dutelako janaria erosteko beste.*

MINERVA VITTI

Hala ere, ikusi denez, ingurumenaren arlokoak bakarrik diren ondorioetatik haratago doa estraktibismoa. Zenbat eta handiagoak izan lurzoruaren aberastasuna, uraren kopurua eta kalitatea, basoen eta hazien kontrola, orduan eta handiagoak izango dira familiek eta herri indigenek bizirauteko dituzten aukerak. Edonola ere, inbasioak, okupazioak eta baliabideen erauzketak ingurumenean dituzten ondorioak benetako mehatxuak dira, ondorio sozial larriak dakartzate eurekin eta neska-mutikoak, gazteak zein emakumeak nahikoa zaurgarriak dira haien aurrean: kutsaduragatik sortutako gaixotasunak, narkotrafikoa, legez kanpoko talde armatuak, alkoholismoa, emakumeen aurkako indarkeria, esplotazio sexuala, pertsonen trafikoa eta salerosketa, organoen salmenta, turismo sexuala, jatorrizko kulturaren zein nortasunaren galera eta lurraldeko liderren nahiz defendatzaileen kriminalizazioa eta hilketa. Horren guztiorren atzean, nagusi diren sektore eta merkatuen interes ekonomiko eta politikoak daude gobernari batzuen eta agintari indigena batzuen konplizitatepean (Sinodo Panamazonikoaren Azken Agiria, 10).

Amazoniako herri indigenak borrokan ari dira, euren kulturak nahiz nortasunak babesteko eta “oihanaren zaintzaile” moduan duten zereginari eusteko. Hain zuzen ere, emakumeek funtsezko lana garatzen dute erkidegoarekin, familiekin, txagrekin eta basoekin bat egiten duen bizitzarako balioak igortzeko orduan. Izan ere, enpresek irabaziak lortzen dituzte oihan amazonikoa esplotatzearren, eta, bien bitartean, behin eta berriro urratzen dituzte herri indigenen eskubideak. Gainera, desberdintasuna zein gizarte-bazterketa areagotzen dituzte, eta generoagatik honako indarkeria hauei aurre egiteko duten zaurgarritasuna handitzen dute: bereizkeria, jazarpena, kriminalizazioa, eraso fisikoak edo heriotza bera ere bai (*Una aproximación al ecofeminismo en el contexto latinoamericano, desde la perspectiva literaria, social y criminológica* - María Isabel Romero Pérez, Yaritza María Vasquez Hernández, Rocío Belén Montenegro Ayala - 149. or.).)

Testuinguru horren aurrean, Amazonaseko arroan, emakume indigenak biziaren, eskubideen eta lurraldeen defentsaren alde elkartzen eta antolatzen ari dira, gero eta mehatxu handiagoei aurre egin behar dieten bitartean. Emakume defendatzaile amazonikoak defendatzeko eta larrialdi klimatikoari erantzuteko lehenengo lerroan daude, COVID-19aren pandemian egon ziren bezalaxe. Gainera, aldaketa geldoa bada ere, emakumeen lidergoa ikusgai jartzen hasi da honako hauen aurkako erresistentzian: industria estraktiboak, agronegozioen hedapena eta lurraldearen suntsipena suspertzen duten gobernu-politikak (Amazon Watch).

*Emakume indigenok borrokatzen eta parte hartzen hasi ginenean, tratu txarrak jasan genituen zenbait zentzutan: ergeltzat hartuak, isilaraziak ("zuok isilik gobernadorea, militarrek eta gobernuko pertsonak datozenean, zuok ez duzue hitz egiteko eskubiderik") [...] Nik neuk hitz egiteko eskubidea neukala sentitzen nuen, eta, apurka-apurka, geure hitza finkatzen joan ginen, oraindik ere erraza ez den arren. Batzuetan, gizon baten alboan eseri behar gara mahaian, entzun diezaguten.*

LISA LYNN



## b. Eredu soziokulturalen eragina generoaren ikuspegitik

Amazoniako emakume indigenek jasaten dituzten indarkerien eta bereizkerien jatorri bakarra ez dira kanpoko faktoreak; estraktibismoa edo krisi klimatikoa, esaterako. Emakumeek mundu-mailan gainditu beharreko indarkerien interseksionalitatea Amazonian ere gertatzen da. Izan ere, eredu estraktibistarekin eta ingurumenaren narriadurarekin lotutako ondorioek lotura dute genero-zeregin tradizionalekin; erkidegoetako sistema soziokultural zein ekonomikoetan dute eragina, eta emakume indigenen bizitzan eragina duten eta euren eskubideen erabilera zenbait mailatan mugatzen duten desberdintasun-dinamikak sortzen dituzte.

Genero-estereotipoek emakumeen eskubide sexualen eta ugalketa-eskubideen erabileran dute eragina, baita indarkeriarik gabeko bizitza duinerako eskubidean ere. Hona hemen, besteak beste, emakume indigena amazonikoek gainditu beharreko bereizkeria nagusiak: indarkeria-tasa handiak, erailda hiltzeko arriskua, osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera mugatua eta, horren ondorioz, amen heriotza-tasa handia edo nerabeen haurdunaldi-tasa kezkagarria (PRO Amazonía, 2019).

Era berean, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak ere urratzen dituzte, ordaindutako lana eta ez ordaindutako lana bateratzean, lehen aipatu den bezala, Amazoniako emakume indigenek hezkuntza, partaidetza politikoa edo euren zainketa eskuratzeko aukera gutxiago dituztelako. Emakumeak esparru pribatuko eta ugalketa-esparruko alde ikusezinean jartzen dituen iruditeriak genero-arrakalak areagotzen ditu, txirotasuna feminizatzen du eta, horrela, eskualde amazonikoko hazkuntza geldoa zein txirotasuna betikitzen ditu.

Lanaren banaketa sexualari dagokionez, emakumeak bizitza publikotik eta erabaki politikoetatik kanpo uzten dituela uste du CEDAWek. Egitate horrek eragin zuzena dauka haien eskubideen errespetuan eta eraldaketarako gaitasunean, emakumeen ahotsak, euren ekarpenak eta euren esperientziak isilarazi eta ezkutatu egiten direlako. Amazonian, emakume indigenek partaidetza mugatua dute botere-eremuetan, eta, lortzen dutenean, “kristalezko sabaiaren” eraginpean daude erabat. Horrela, landa-inguruneetan, dinamika komunitarioarekin lotutako eremu publikoetan, emakume liderren partaidetza erdi-mailakoa da. Erkidegokoak ez diren instituzio publikoekin harremanetan dauden eremuetan, ordea, emakumeen partaidetza-maila txikia da (PRO Amazonía, 2019).

*Nire erkidegoko kurakak oso diskurtso arriskutsua bota zuen iritsi zenean [...] Haren esanetan, emakumeok ezin genuen hitz egin. Diskurtso hori hautsi behar izan genuen, eta ez zen erraza izan gizonari aurre egitea. Bere egunean, gizon hori gure aliatua zen, gure liderra zen, borrokako kide genuen, baina, halako batean, emakumeak baztertzea eta estigmatizatzea erabaki zuen [...] Nik neuk aurka egiten nien batzar bakoitzean, eta, orain, atsegingarria da hau esatea: “emakumeok gara lurraldeko liderrak.*

ANITALIA PIJATCHI

Aurrekoarekin lotura estu-estua duenez, nabarmendu beharra dago eredu tradizionalek emakume indigenek Amazoniako biziari eusteko orduan duten funtsezko ekarpena ezkututzen dutela, baita haien borrokak ere. Izan ere, erresistentzia indigena eta partaidetza indigena beti-beti egon dira Amazonian. Nolanahi ere, estatuek eta enpresa-taldeek aurrerakuntza ekonomikoaren aurkako ekintzatzat jotzen dituzte naturaren defentsa eta borroka, eta, horren ondorioz, eskubideak zein natura defendatzen dituzten gizon eta emakumeen aurkako indarkeria sortzen da. Izan ere, neutralizatzailea da, eta genero-interseksionalitatea uzten du agerian.



Nahiz eta zapalkuntza eta bereizkeria ugariak gainjarrita dauden, emakume asko antolatzen eta lan egiten ari dira, haien hitza entzun dadin. Euren lurraldeen, ingurumenaren eta herrien eskubideen defentsako liderrak direnez, funtsezkoak dira bizia eta lurraldea defendatzeko orduan.

*Hitzez hitz, euspen-horma bezalakoak garela esaten ausartzen naiz. Emakumeongatik ez balitz, aspaldi egongo ginateke ahaztuta. Izan ere, gu geu gara bizia ematen dugunak, zutabea gara, familian edo erkidegoan, baita ahaztuta dagoen gizartean ere. Biziari eusteko eta bizitzaz gozatzen jarraitzeko, emakumeok errespetatu behar gaituzte, eta entzun egin behar digute. Ez dago beste biderik.*

LISA LYNN

## 3.2. Amazonia defendatzeko gako ekofeministak

Eredu sozioekonomiko globalak ezaugarri bereizgarri duen logika dikotomikoak zapalkuntza, inposaketa eta jabetzea betikotzen ditu. Ikusi denez, dinamika horiek eragin kaltegarria dute planetako biziari eusteko orduan. Izan ere, justizia sozial eta klimatikoari barik botereari eta adierazle ekonomikoei lehentasuna ematen dietenez, elkarren artean lotuta dauden eta irismen globalekoak diren krisi konplexuak sortzen dituzte. Ekofeminismoen iritziz, egitura desberdinengatik eta zeregin tradizionalengatik krisi horiek sorrarazten dituzten gizarte eta ingurumen arloko ondorioek eragin bereizia dute emakumeengan eta lurralde zaurgarrienetan. Hori dela eta, ingurumen-arloko arazoak jorratzeko, zientifikoa baino ez den ikuspegian oinarritutako ulerkuntzatik haratago joan beharra dago.

Biziari eusteko orduan emakumeak eta natura esplotatzen eta ezkutatzen dituzten egiturazko arrazoiak konplexuak direnez, premiazkoa da eraldaketa sakona egitea. **Ikuspegi ekofeministak** ulerkuntzarako giltzarriak eskaintzen ditu, baita errealitatea eraldatzeko alternatibak ere. Gainera, beretzat premiazkoa da pertsonen eta naturaren zainketa bizitzaren erdigunean jartzea. Izan ere, emakumeen esparrutzat (icebergaren beheko aldea) hartutako guztiari buruzko diskurtsoak sarritan mututzen dituzten hurbilketa tradizionalen aurrean, justizia sozialari lehentasuna ematen dion eraldaketa integrala proposatzen du ekofeminismoak.

*Beste testuinguru batzuetako emakume kideekin eremuak partekatzean, ulertu nuen begirada malguagoak zeudela eta honako hau dela gakoa: planetan esplotaziorako zein indarkeriarako egoten diren prozesuak eta loturak agerian jartzea, emakumeek lurraldearen defentsan duten zeregin protagonista aitortzea eta definizioa edo argudio teorikoa apur bat alde batera uztea.*

JÚLIA MARTÍ

Planetan eta Amazonian ikusezinak diren zauriak eta ahotsak natura suntsitzen duten eta giza eskubideak zein herri indigenen eskubideak etengabe urratzen dituzten indarkerien erakusgarri dira. Dena dela, hurrengo ondorioak nabarmendu nahi ditugu, jakin badakigulako funtsezkoak direla ikuspegi ekofeminista modu transbertsalean kontuan hartzen duen eraldaketa integrala egitea premiazkoa dela behin eta berriro adierazteko orduan.



**Eraldaketa integrala.** Amazoniak planetari eskaintzen dizkion ingurumen-zerbitzuak edo emakume indigenak bultzatzen ari diren lidergo feministak aitortu eta entzun egin behar dira. Genero-desberdintasuna eta indarkerien intersektionalitatea, ordea, naturaren esplotazioa bezala, planetan han-hemenka berregiten diren dinamikak dira. Berdintasunaren eta ingurumenaren zainketaren aldeko borrokako lotunean eta harremanaren bitartez, ekofeminismoek agerian jartzen dituzte planetako elkarloturak, eta balioa ematen diete kolektibotasunaren botereari eta, gaur egun ezagutzen dugun mundua ez ezik, etorkizuneko belaunaldiena ere eraldatzeko hartutako konpromisoari.

*Jarraitu, ekin eta ekin eta iraun egin beharra dago, eta aldaketa egin beharra dagoela pentsatu behar dugu. Behin eta berriro esan beharra dago mundu hau desberdina izan behar dela [...] Daviden eta Goliaten arteko borroka da, eta, zaila bada ere, gauza desberdinak, hazi berriak erein ditzagun, behintzat [...] Ez ditut beti ikusi erein ditudan gauzen emaitzak, baina batzuetan horixe bera da xedea...*

MARÍA TERESA URUEÑA

**Enpresen eta gobernuen zeregina.** Hornikuntza-kateak opakuak direnez, benetan zaila da estraktibismoan eta eskubideen urraketan inplikaturik dauden enpresek eta gobernuak kontuen berri ematea lortzea. Ekofeminismoak indarkeriako zein suntsipeneko ekintza horiek agerian jarri nahi dituzten zenbait aktibismo-modurekin identifikatzen dira, eta erakunde erantzuleen zigorgabetasuna desagerraraztea dute helburu.

*Herrialde askok lehengaietan oinarritzen dute euren ekonomia. Latinoamerika jakitokia gara, eta gobernuek erantzukizun handia dute horretan. Ekonomia lehen sektorekoa izateko prozesua eta ustelkeria etengabe errepikatzen diren bi elementu direnez, gizartean eta ingurumenean harrapakaritza da nagusi.*

MINERVA VITTI

**Biziari eusteko bizimodu berriak.** Amazonian, ingurumen, gizarte eta kultura arloko ondorioek nazioarteko merkatuetako eskariekin lotura estu-estua dutenez, irtenbideak lortzeko, bizimoduak zein jokabideak aldatu behar dira, eta merkatuak arautzeko eraldaketa integralak zein politikoak egin behar dira.

*Ez dira ingurumenarekin ditugun menpekotasuna eta harremana errespetatzen, eta, bien bitartean, salbatuko gaituena teknologia izango dela dio eredu ekonomikoak. Dena dela, agerikoa da ingurumenean dugun eraginak gure bizitzan ere baduela eraginik.*

AITZIBER SAROBE

**Lidergo feministak.** Ekofeminismoak ikusgai dagoen botere hierarkizatu eta baztertzaitetik aldentzen dira, eta honako honexetan oinarritutako lidergo eraldatzaile feministen aldeko apustua egiten dute: interdependentzia eta ekomenpekotasuna aitortzea, funtsezkoa delako eredu jasanezina eraldatzeko; eta biziari eusteko justizia soziala lortzea. Aldaketa integralaren premiaren inguruan kontzientziatzeko, ezinbestekoa izango da lidergo horiek aitortzea eta agerian jartzea. Hori dela eta, ekofeminismoek eskatzen dute emakumeek eta herri indigenetako eta nahikoa zaurgarriak diren beste giza talde batzuetako ordezkariak erabakiak hartzeko guneetan eta tokiko nahiz nazioarteko bileretan edo goi-bileretan parte hartu dezatela, gizarte eta ingurumen arloko krisiari aurre egiteko.

*Aitona-amonek “bestearen pentsamenduari buelta ematen” ikastea garrantzitsua dela esaten didate. Nola eman buelta gaixorik dagoen, erail egin nahi duen eta indarkeria darabilen pentsamenduari edo bihotzari. Nola hoztu eta eztitu pentsamendua [...] Gizonak indarkeriaren, larderiaren eta anabasaren bidez baino ez ziren liderrak. Horren aurrean, guk, emakumeok, ezetz esan genuen, ez zela horrela izango [...] Ekarpenak egitea, neure jakintza eskaintzea eta egiten dudanarekin lasai egotea. Norberak egiten duen gauzatxo hori norbaitek entzungo du, norbaitek bilduko du.*

ANITALIA PIJATCHI

**Amazonia gara.** Milioika urteko bilakaeraren ostean planetan indarrean dauden bizi-sistema konplexuen loraldia suspertu zuten tenperatura-baldintzak azkar-azkar aldatu daitezke giza ekintzagatik. Premiaz geldiarazten eta birbideratzen ez badira, Amazonia pairatzen ari den egiturazko erasanek arrisku handian jarriko dute ekoeskualdeko landare, animalia eta giza bizia, baita planetako bizia bera ere, gaur egun ezagutzen dugun moduan.



## 4. BIBLIOGRAFIA

- Amazon Watch. (2020). "European Banks Financing Trade of Amazon Oil to the US". Online ikusgai, hemen: <https://amazonwatch.org/news/2020/0812-european-banks-financing-trade-of-amazon-oil-to-the-us>
- Amazoniako Sinodoa, 10. (2019). *Documento final del Sínodo de la Amazonía*. Vatikano Hiria: Egoitza Santuaren Prentsa Bulegoa. Ikusgai, hemen: <https://redamazonica.org/wp-content/uploads/documento-final-Sinodo-de-la-Amazon%C3%ADa.pdf>
- Arana Zegarra, María Teresa. (2017). *Género y cambio climático en América Latina*. Climate and Development Knowledge Network (CDKN) Latin America. Ikusgai, hemen: <https://cdkn.org/es/resource/generolac>
- Bastos, Solange. (2017). *Na Rota dos Arqueólogos da Amazônia – 13 Mil Anos de Selva Habitada*. Teresópolis, RJ: Família Bastos Editora. Online ikusgai, hemen: <https://science.sciencemag.org/content/355/6328/925>
- Belichón, F. (2018). "Los 20 países con las mayores reservas de petróleo del mundo". *Business Insider*. Online ikusgai, hemen: <https://www.businessinsider.es/10-paises-mayores-reservas-petroleo-mundo-249164>
- Blackburn, Daniel. (2017). *Removing Barriers to Justice: How a treaty on business and human rights could improve access to remedy for victims*. Coopération Internationale verter le Développement et la Solidarité (CIDSE). Ikusgai, hemen: <https://www.cidse.org/2017/09/05/removing-barriers-to-justice/>
- Botero-García, R. et al. (2019). *Áreas protegidas amazónicas y sus funcionarios como víctimas del conflicto armado*. Bogota: Kontserbaziorako eta Garapen Iraunkorrerako Fundazioa.
- Boulton, C., Lenton, T., & Boers, N. (2022). "Pronounced loss of Amazon rainforest resilience since the early 2000s". *Nature Climate Change*. Online ikusgai, hemen: <https://www.nature.com/articles/s41558-022-01287-8>
- Caldeira, Jorge. (2017). *Historia do riqueza no Brasil. Cinco séculos de pessoas, costumes e governos*. Estação Brasil.
- Castaño, Carlos. (2019). *Chiribiquete: la maloka cósmica de los hombres jaguar*. MESAESTANDAR.
- Costa, C. (2020). "Destrucción del Amazonas: las principales amenazas para la mayor selva tropical del mundo en los 9 países que la comparten". *BBC News*. Ikusgai, hemen: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-51377234>
- De Cózar, José Manuel. (2019). *El Antropoceno. Tecnología, naturaleza y condición humana*. Madril: Catarata.
- Escobedo, Annie. (2021). *Agronegocios y crisis climática en Perú*. Lima: Oxfam América. Online ikusgai, hemen: <https://peru.oxfam.org/latest/policy-paper/agronegocios-y-crisis-climatica-en-peru>
- Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala (EBAO). (2017). *Reglamento (UE) 2017/821*, 206. zk., 1-406. or. Online ikusgai, hemen: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32017R0821&from=HU> [azken bisita: 2022/04/05]
- European Commision. (2022). *Proposal for a Directive on corporate sustainability due diligence and annex*. Ikusgai, hemen: [https://ec.europa.eu/info/publications/proposal-directive-corporate-sustainable-due-diligence-and-annex\\_en](https://ec.europa.eu/info/publications/proposal-directive-corporate-sustainable-due-diligence-and-annex_en)
- European Commission. (2021). *Proposal for a regulation on deforestation-free products*. Ikusgai, hemen: [https://ec.europa.eu/environment/publications/proposal-regulation-deforestation-free-products\\_en](https://ec.europa.eu/environment/publications/proposal-regulation-deforestation-free-products_en)

- Gaia Amazonas. (2019). “Los roles tradicionales de las mujeres indígenas amazónicas”. Online ikusgai, hemen: [https://www.gaiaamazonas.org/noticias/2019-08-30\\_los-roles-tradicionales-de-las-mujeres-indigenas-amazonicas/](https://www.gaiaamazonas.org/noticias/2019-08-30_los-roles-tradicionales-de-las-mujeres-indigenas-amazonicas/)
- Gizarte eta Ingurumen Informazio Georreferentziatuaren Amazoniako Sarea (RAISG). (2018). *Amazonía en la encrucijada*. Online ikusgai, hemen: <https://encrucijada.amazoniasocioambiental.org/story?lang=es>
- Gizarte eta Ingurumen Informazio Georreferentziatuaren Amazoniako Sarea (RAISG). (2020). *MAPBIOMAS*. Online ikusgai, hemen: Amazonia transformada: <https://amazonia.mapbiomas.org/unprecedented-mapbiomas-study-in-the-amazon-reveals-a-loss-of-vegetation-cover-in-36-years-equivalent-to-one-chile-1#:~:text=Entre%201985%20y%202020%2C%20la,151%25%20en%20agricultura%20y%20ganader%C3%ADa.>
- Gizarte eta Ingurumen Informazio Georreferentziatuaren Amazoniako Sarea (RAISG). (2020). *Minería ilegal*. Online ikusgai, hemen: <https://mineria.amazoniasocioambiental.org/>
- Global Justice Now. (2016). “The case for a UN Treaty on Transnational Corporations and Human Rights”. Online ikusgai, hemen: <https://www.globaljustice.org.uk/resource/controlling-corporations/>
- Global Witness. (2019). “Money to Burn”. Online ikusgai, hemen: <https://www.globalwitness.org/en/campaigns/forests/money-to-burn-how-iconic-banks-and-investors-fund-the-destruction-of-the-worlds-largest-rainforests/>
- Gudynas, E. (2011). “La izquierda de los límites al nuevo extractivismo”. *La Primera*. Ikusgai, hemen: <http://extractivismo.com/wp-content/uploads/2016/06/GudynasIzquierdaLimitesExtrLaPrimeraMay11f.pdf>
- Iglesias y Minería. (2022). *Caravana Latinoamericana. Por la resistencia en tiempos extractivistas*. Ikusgai, hemen: <https://justiceinmining.org/wp-content/uploads/2022/03/ES-LA-Caravan-special-report.pdf>
- Latinoamerika eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa (CEPAL). (2021). *La paradoja de la recuperación en América Latina y Caribe*. Ikusgai, hemen: [https://repositorio.cepal.org/bitstream/handle/11362/47043/5/S2100379\\_es.pdf](https://repositorio.cepal.org/bitstream/handle/11362/47043/5/S2100379_es.pdf)
- Levis, C., Costa, Bongers, F., Peña-Claros, M., Clement, C., Junqueira, A., et al. (2017). “Persistent effects of pre-Columbian plant domestication on Amazonian forest composition”. *Science*, 355. libk., 6328. zk. Online ikusgai, hemen: <https://science.sciencemag.org/content/355/6328/925>
- Martins, A. (2021). *De Groenlandia a la Amazonia: la cadena de interacciones de la que puede depender el futuro del planeta*. Online ikusgai, hemen: [https://www.bbc.com/mundo/noticias-57568430?at\\_custom4=EBBAC84C-D446-11EB-B2288724BECD475E&at\\_custom3=BBC+News+Mundo&at\\_custom1=%5Bpost+type%5D&at\\_medium=custom7&at\\_campaign=64&at\\_custom2=facebook\\_page&fbclid=IwAR07Bi-cBcvbuDvCDy4bK02ycTB\\_h7UpFT3rkwa\\_nOa](https://www.bbc.com/mundo/noticias-57568430?at_custom4=EBBAC84C-D446-11EB-B2288724BECD475E&at_custom3=BBC+News+Mundo&at_custom1=%5Bpost+type%5D&at_medium=custom7&at_campaign=64&at_custom2=facebook_page&fbclid=IwAR07Bi-cBcvbuDvCDy4bK02ycTB_h7UpFT3rkwa_nOa)
- Nazio Batuen Ingurumen Programa – Amazoniako Lankidetzaren Itunaren Antolakuntza (PNUMA – OCTA). (2009). *Perspectivas del Medio Ambiente en la Amazonia*. Lima.
- Nobre, C., & Lovejoy, T. (2018). “Amazon Tipping Point”. *Science Advances*, 4. libk., 2. zk. Online ikusgai, hemen: <https://www.science.org/doi/10.1126/sciadv.aat2340>
- Novillo Rameix, Nathalia. (2019). “Barreras en el empoderamiento socio político de las mujeres amazónicas”. *Diagnóstico de la situación de las mujeres amazónicas*. PRO Amazonia.
- Pérez Orozco, Amaia. (2014). *Subversión feminista de la economía sobre el conflicto capital-vida*. Madril: Traficantes de sueños.
- Pulecio, Jorge (1981). *Aspectos socioeconómicos de la colonización del Caquetá*. Amazoniako Unibertsitateko Irakasleen Kooperatiba. Florentzia.

- Pulecio, Jorge. (2022). *Amazonia Viva. Contexto y pronóstico socioambiental para la acción colectiva*. Alboan Fundazioa. Ikusgai, hemen: [https://www.alboan.org/sites/default/files/amazonia\\_viva\\_-\\_jorge\\_pulecio\\_-\\_alboan.pdf](https://www.alboan.org/sites/default/files/amazonia_viva_-_jorge_pulecio_-_alboan.pdf)
- Quijano Vallejos, Patricia et al. (2020). *Undermining Rights: indigenous lands and mining in the Amazon*. Washington: World Resources Institute. Online ikusgai, hemen: <https://www.wri.org/research/undermining-rights-indigenous-lands-and-mining-amazon>
- Robinson, A. (2022). “América Latina se cobra el dividendo de la guerra en Ucrania”. *La Vanguardia*. Online ikusgai, hemen: <https://www.lavanguardia.com/economia/20220327/8153577/guerra-ucrania-rusia-alimentos-materias-primas-america-latina.html>
- Romero-Pérez, M. I., Vázquez-Hernández, Y. M. eta Montenegro-Ayala, R. B. (2020). “Una aproximación al ecofeminismo en el contexto latinoamericano: desde la perspectiva literaria, social y criminológica”. *Asparkia. Investigació Feminista*, (37), 133-154. Online ikusgai, hemen: <https://www.e-revistas.uji.es/index.php/asparkia/article/view/4478>
- Salazar-Lopez, L & Martínez, A. (2021). “Women Defenders Unite to Protect the Amazon”. *Amazon Watch*. Online ikusgai, hemen: <https://amazonwatch.org/news/2021/0309-women-defenders-unite-to-protect-the-amazon>
- Sánchez, J. (2020). “Nueve niñas hacen frente a los “mecheros de la muerte” en Ecuador”. *El Salto*. Online ikusgai, hemen: <https://www.elsaltodiario.com/petroleras/nueve-ninas-hacen-frente-a-los-mecheros-de-la-muerte-en-ecuador>
- Science Panel for the Amazon (SPA). (2021). *Amazon Report Assessment 2021*. New York: United Nations Sustainable Development Solutions Network. Kapitulu guztiak daude ikusgai, hemen: [www.theamazonwewant.org](http://www.theamazonwewant.org) [azken bisita: 2022/04/05]
- Segura Warnholtz, Gerardo. (2017). *Protección de los derechos de tenencia de los bosques para el desarrollo rural. Enseñanzas de seis países de América Latina*. Program on Forests (PROFOR). Ikusgai, hemen: [https://www.profor.info/sites/profor.info/files/PROFOR\\_ForestTenure\\_ESP\\_high.pdf](https://www.profor.info/sites/profor.info/files/PROFOR_ForestTenure_ESP_high.pdf)
- Souza, J. D. (2018). “El hallazgo en el Amazonas que replantea la historia de esta selva”. *El Tiempo*.
- Wagner, Livia. (2016). *Organized Crime and Illegally Mined Gold in Latin America*. Geneva: The Global Initiative against Transnational Organized Crime. Ikusgai, hemen: <https://globalinitiative.net/wp-content/uploads/2016/03/Organized-Crime-and-Illegally-Mined-Gold-in-Latin-America.pdf>
- Walker, W. S. (2020). *The role of forest conversion, degradation, and disturbance in the carbon dynamics of Amazon indigenous territories and protected areas*. Proceedings of the National Academy of Sciences (PNAS). Online ikusgai, hemen: <https://www.pnas.org/doi/10.1073/pnas.1913321117>
- World Bank. (2020). *Minerals for Climate Action - The mineral intensity of the clean energy transition*. Washington: World Bank Publications. Online ikusgai, hemen: <https://pubdocs.worldbank.org/en/961711588875536384/Minerals-for-Climate-Action-The-Mineral-Intensity-of-the-Clean-Energy-Transition>



Laguntzaileak:



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

